

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA

(Frantses Akademiak 2008/06/12an egindako adierazpena dela-eta)

Frantziako Konstituzioa aldatzeko xedea eztabaidatu da berrikitan Frantziako Parlamentuan. Karia horretara, proposamen bat egina izan da, Frantziako eskualde hizkuntzei nolabaiteko ezagutza emateko, hizkuntza horiek Frantziako ondarearen parte direla Konstituzioan agerraraziz. Lehenik Diputatu Ganberak onartu du aldaketa proposamen hori; ondoren, haatik, Senatuak kenarazi du, gai horren inguruan gizartean eztabaida bizia sortzen zelarik. Frantses Akademia bereziki holako aldaketa baten aurka goraki mintzatu da, akademiakideek aho batez onartu adierazpen batean galdatzen zutelarik aldaketa proposamen hori ken zedin, Frantziako Konstituzioan hizkuntza horiei aipamen den mendrenik ez egiteko, edo ezagutza formalik ez emateko.

Testuinguru horretan, eta Konstituzioaren aldaketa oraino eztabaidatzen delarik, Euskaltzaindiak hauxe jakinarazten du:

1. Euskara euskaldunen hizkuntza da, ez baitezpada hizkuntza bakarra, aspaldi baita euskaldunek eleaniztasunaren beharraren eta haren onuren berri dakitela, bai ordea berezko hizkuntza. Mintzaira horren bidez izendatzen dugu geure burua, haren bidez, halaber, geure herria.
2. Horiek hola, euskara historikoki estatu eta administrazio eremu desberdinetan mintzatua izan da, eta ondorioz beti legezko egoera desberdinetan bizi izana da. Zuzenbide egoera desberdintasun horren gainetik, Euskaltzaindiak aspaldi jakinarazi du euskarari zor zaiola, mendez mende aspaldiko denboretan mintzatua izan den herrialde guztietan, legearen ezagutza eta geriza. Hain zuzen ere, 1994an, bere 75. urtemugakari, Miarritzen egin zuen adierazpenean galdatu zuen Frantziako estatuan ere euskarak izan zezan dagozkion hiru herrialde historikoe-tan ko-ofizialtasuna; (ikus adierazpena ondoko dokumentuan).
3. Egun, berriz ere, printzipio beretan finkaturik, biziro eskatzen dugu Frantziako estatuan ere euskarak izan dezan estatuaren legezko anto-lamenduan zor zaion ezagutza betea, nazioarteko hitzarmen guztietan, bereziki Europakoetan, eskatua den bezala.
4. Deitoratzen dugu, frantses mintzairaren kasuan legearen babesaren beharraz horren kezkatua den Frantses Akademia, hain bortizki eta

itsuski, Frantziako beste hizkuntza anitzez ahulagoen kasuan Frantziako Konstituzioan aipamen sinboliko den gutieneko baten egitearen aurka altxatzea.

5. Euskaltzaindiak jakinarazten du gerturik dagoela, orain arte izan den bezala, herri agintari eta erakunde publiko guztiekin lan egiteko euskarak izan dezan ezagutza ofiziala Frantziako herrialde euskaldunetan.

Euskaltzaindiak aho batez onartua, Bilbon, 2008ko ekainaren 27an.

DÉCLARATION DE L'ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE **(à propos de la déclaration de l'Académie Française** **du 12 juin 2008)**

Le Parlement français a récemment débattu du projet de modification de la Constitution. A cette occasion, la proposition a été faite d'introduire une certaine forme de reconnaissance des langues régionales en faisant apparaître dans la Constitution une phrase précisant que ces langues appartiennent au patrimoine de la France. Dans un premier temps, cette modification constitutionnelle a été adoptée par la Chambre des Députés; dans un second temps, elle a été rejetée par le Sénat. Lors du débat qui a suivi dans l'opinion, l'Académie française s'est exprimée avec force pour demander le retrait définitif de cette proposition, et a publié une déclaration, adoptée à l'unanimité, indiquant qu'elle était opposée à l'introduction dans la Constitution de toute mention ou reconnaissance formelle des langues régionales.

Dans ce contexte, alors que les modifications constitutionnelles sont encore en cours d'examen, l'Académie de la Langue basque fait la déclaration suivante:

1. L'euskara est la langue des Basques. Pas nécessairement leur seule langue, car il y a bien longtemps que les Basques connaissent la nécessité et les bienfaits du plurilinguisme, mais certainement leur langue propre et spécifique. C'est par elle que nous nous nommons en basque, par elle également que se nomme notre pays.
2. Historiquement, le basque a été parlé dans des Etats et des entités administratives différentes, et a donc été toujours confronté à un environnement varié du point de vue juridique. L'Académie a depuis longtemps indiqué à plusieurs reprises que, par delà la pluralité des situations que le basque rencontre sur ce plan, il convenait qu'il reçût la pleine reconnaissance et la protection de la loi dans les provinces où il a été historiquement parlé. Ainsi, dans leur déclaration adoptée à Biarritz en 1994 à l'occasion du 75^{ème} anniversaire de la naissance de l'Académie, les académiciens avaient demandé qu'en France également l'euskara bénéficiât de la co-officialité dans les trois provinces basques où il était en usage.
3. Aujourd'hui à nouveau, en nous fondant sur ces mêmes principes, nous demandons de manière pressante que le basque reçoive en France la

pleine reconnaissance juridique qui lui est due, ainsi que le préconisent les divers traités internationaux, notamment européens, qui abordent ces questions.

4. Nous regrettons vivement que l'Académie française, si consciente de la nécessité de faire bénéficier la langue française de la protection de la loi, se déclare hostile, de façon si absolue et brutale, à ce que la moindre reconnaissance –fût-elle purement symbolique– soit attribuée dans la Constitution aux autres langues de France, pourtant confrontées, elles, à des conditions incomparablement plus défavorables.
5. L'Académie de la Langue basque déclare enfin qu'elle demeure disposée, comme elle l'a toujours été, à collaborer avec les autorités et institutions publiques françaises afin que la langue basque puisse bénéficier d'une pleine reconnaissance dans les trois provinces du Pays Basque de France.

Déclaration adoptée à l'unanimité par l'Académie de la Langue basque lors de sa session plénière tenue à Bilbao, le 27 juin 2008